

Kantu herrikoia ikastolan baliabide. Donostiako Karkizano kaleko ikastola, 1964-75

(Popular songs as resource in the ikastolas (Basque Schools). The Ikastola in Carquizano street at Donostia, 1964-75)

Egaña Goya, Miren
X. Zubiri-Manteo BHI
J.M.Barandiaran, 10-12
20013 Donostia

BIBLID [1137-859X (2001), 7; 105-118]

Lan honetan Donostiako Karkizano kaleko Ikastolan (1951-1975) erabiltzen ziren haur kanta eta antzekoak sailkatzen saiatu gara, 1964-75 urteetan mugatuz. Sailkapena urtearen aro bakoitzari dagozkion kantuak kontutan harturik egin dugu. Egokienak iruditu zaizkigunak eta gure iritziz topatzen zailagoak direnak edo, bere osotasunean eman ditugu. Ikasturtea kontuan harturik, haserako kantak, gabonetakoak, eta udaberri Jaunartzekoak osatzen dute gure sailkapena, bai eta ekintzetakoak, keinukako haur kantak, aho korapilo, don-donak eta bestelakoak ere.

Giltz-Hitzak: Ikastola. Haur kantak. Gabon kantak. Aho korapiloak.

En este trabajo se lleva a cabo una clasificación de las canciones infantiles utilizadas en las clases de la Ikastola de la calle Karkizano de Donostia (1951-1975). La selección corresponde al periodo comprendido entre 1964 y 1975. Los criterios de clasificación han sido dos: temático, por una parte, agrupándose las canciones correspondientes a cada una de las épocas del año. Tomando como unidad el curso escolar, se dividen en canciones de comienzo del curso, del ciclo de la Navidad y las del ciclo de primavera y Primera Comunión. Por otra, se tiene también en cuenta la forma de interpretarlas: con ayuda de mímica, como trabalenguas, cantinelas etc. Se transcriben completas las canciones que consideramos más adecuadas y aquellas que resultan más difíciles de encontrar publicadas.

Palabras Clave: Ikastola. Canciones infantiles. Canciones de navidad. Trabalenguas.

On a essayé de classer les chansons d'enfants et similaires chantées à l'ikastola de la rue Karkizano de Donostia (1951-75), en étudiant les années 1964-75. On a fait une classification tenant compte les différentes époques de l'année. On a transcrit les chansons les plus adéquates ou bien celles qui nous ont paru plus rares pour trouver. On les a classifiées comme chansons du début, de Noël et celles de printemps et Première Communion selon le discours de l'année scolaire. On a tenu compte aussi des chansons d'enfants avec des gestes, des jeux de mots ainsi que toutes les autres.

Mots Clés: Ikastola. Chansons d'enfants. Chansons de Noël. Jeux de mots.

SARRERA

Karkizano Ikastola Donostiako Gros auzoan kokaturik zegoen, Egaña Goyatarren etxean hain zuzen. Ikastola hau martxan jarri zuen gerra ostean M^a Dolores Goya Mendiola andreak eta handik urte batzuetara, Miren Egaña Goya bere alaba arituko zen andereño gisa bertan berarekin. Haurrera jo baino lehen, ezin bestekoa iruditzen zaigu argitzea irakasle honen gora beherak.

M^a Dolores Goya Mendiola, donostiarra zen, Ensantxeko Euskalerrria kalean jaioa 1913.an. Moja Marianisten eskolan ikasi eta Batxilerra librez egin eta gero Magisteritza hasi zuen Duke de Mandasen zegoen eskolan, Ategorrietakoan burutuz 1932an 19 urte zituelarik. Gerra aurrean Etxaide kaleko ikastolan aritu zen irakaskuntzan, eta 1936.an eskola publikoetako oposaketetan ari zela gerra hasi, eta Plentzian jarraitu zituen oposaketak edo kurtsiloak, Errepublikak eskolak itxiarazi zituen arte, Gernikako bonbardaketaren ondoren.

EAJ ak antolatu zituen haurren erbesteratzean esku hartu zuen, “La Habana” delako itsas untzian Ingalaterrako bidea hartuz, “The Isle of White” irlara abiatu zen bere haur taldearekin eta bertan urte bete eskas igaro ondoren, Parisa eta gero Donostiara, etxera, itzuli zen 1941ean.

Ez zen geldirik egon orduan ere, eta 1943 urtean, Ergobian ireki zuen eskola bat eta bertan jardun zen 1946 arte, Berandua 1951.ean, Elisabete Maiztegik bultzatu eta animaturik ikastola zabaldu zuen gure etxean eta bertan jarraitu zuen 1970 arte. Ordurako gaixorik zegoen jada, eta lana laga beharrean aurkitu zuen bere burua.

Bitartean, ni neu, lehendabizi eskola frantsesetan eskolatua, gero Moja Marianistetan eta azkenik Ategorrietako Magisteritza eskolan 1964 n amaitua nuen 18 urtetako Magisteritza eta prest nengoen amarekin lan egiteko.

Oso baliagarriak eta mesedegarriak izan zitzaizkidan lanean hasterako etxean eginak nituen “praktikak”. Nola banatu ordutegia edo, genituen ikasgai, material urriak nola baliatu eta abar. Horien artean oso garrantzi handia ematen genion egunero goiz eta arratsalde egiten genuen kantu saioari. Hemen zera esan behar dut, ama oso kantari ona zela, belarri onekoa eta Abesbatzan soprano bezala aritua gerra aurretik.

EGUNAREN ORDU BANAKETA

Garai haietako haurrak bi orduko eskola hartzen zuten: goizez 10etatik 12tara ala arratsalde 3etatik 5era. Eskola unitario bat zen, hau da: adin desberdineko haurrak nahasirik genituen, 3 urtetik 9 urte bitarteko neska-mutilak ziren gure ikasleak. Ikastolak beste ezaugarri berezi bat zuen eta garrantzitsua gure iritziz: mistoa zen, neskak eta mutilak batera genituen gelan. Bereztasun hau ez zuen diktaturak onartzen, eta oso aparte zeuden neskak eta mutilak hiri handietako eskoletan eta batez ere fraide eta moja

katolikoek, jakina den bezala, oso ondo laguntzen zioten honako eta bestelako eginkizunetan diktadurari.

Dena den gure ikastola konfesionala zen eta kantu erlijiosoak ere irakasten genituen urtean zehar eta egunero baita ere.

Ordu laurden bat ematen genion bai goizez, bai arratsaldeztan kurtso hasieran kantatzeari eta hurrek ikasi ahala gehituz joaten ginen eginkizun honetako denbora, ordu erdi bat erabili arte. Ordu erdi honetan kantuak, otoitzak eta kurtso bukaeran ibai eta mendiak ere kantatzen genituen aurrerago ikusiko dugun bezala.

URTEAREN BANAKETA

Urtean zehar eta adin ezberdinak kontuan hartuta, “grosso modo” lau kanta saio mota egiten genuen. Urte hasierakoa, Eguberrietakoa, hiriko festetako eta azkenik udaberri, Jaunartze girokoa.

Guzti honetaz gainera psikomotrizitatea lantzen zuten kantak, bai eta hizkuntza bera ere lantzen genituen. Atal honetan aho korapiloak ere sartzen genituelarik, bai eta don-donak eta horrelakoak ere bai.

IKASTURTE HASIERAKO KANTAK

Urriaren 2an hasten zen ikasturtea eta lehen aipatu dugun bezala gure ikastola unitario eta misto honetan etorri berriak genituen urtero 10en bat haur eta beste 50 aurreko urteetakoak. Etorri berrien artean beti egon ohi ziren haur euskaldun batzuk eta horiekin batera euskara tutik ez zekitenak ere. Ikasle hauek 3 urte beteak zituzten edo betetzear behintzat. Gaztetxo hauek kontuan harturik, bai eta, aurreko urtean nolabait euskara ikasi eta udako oporretan zehar ahaztu zutenak, kantaz baliatzen ginen batzuk ikasi eta besteek berriz, berreskura zezaten euskara.

Lehengo kantua Jainkoari egiten zitzaion:

Jainko ederra
On ona eta
Handia
Zeruko Aita
Oihuka zure
Haurtxoak
Gora Jainkoa
Zure nauzu
Oso osoa.

Hau abestu ondoren otoitzak esaten genituen eta gero kantuak. Otoitzen kasuan nola kantuenean ere, ikasi ahala gehituz joaten ginen bata bes-

tearen atzetik. Horrela bada, osatzen genuen ordu erdi bat, eta batzutan gehiago ere.

Beste kanta batzuen artean oso deigarria egiten zitzaien:

Hain urrin etxe poxpola hola, hola,
tximinitik gora kea dariola, hola, hola
gaintxuan arbola zelai erdian
Erreka poxpola etxe atarian
Tralaralala eta tralala
Dena txiki-txikia, txikia hola

Jo ate etxeko txilina hola, hola...
—————hola, hola...
sutan danbolina gaztaina erretzen
lapikoa gal-gal babak egosten
Tralaralala eta tralala
Dena txiki-txikia, txikia hola

Badator etxekoandrea hola, hola...
begitxoak ñir-ñir, ahotan irria hola, hola...
buruan jantzita buruzapia
besotan haurtxoa jaio berria
Tralaralala eta tralala
Dena txiki-txikia, txikia hola

Kantu hau keinuz, soinketa antzeko taula bat bezala egiten zen.

Gorputz atalak ikasteko herrikoia eta hain ezaguna den zozoaren kantua erabiltzen genuen.

Xoxoak galdu du mokoak
mokoak galdu du xoxoak
nola kanta nola txistu
nola kanta xoxoak

Xoxoak galdu du begia
begia, mokoak galdu du xoxoak
nola kanta nola txistu
nola kanta xoxoak

Xoxoak galdu du burua
Burua, begia, mokoak, galdu du xoxoak
...
Xoxoak galdu du hegoa
...
Xoxoak galdu du zankoa
...etab.

Kantu honetan gorputz atalak seinalatzen ziren bakoitzean eta gehitu egiten ziren aurrekoei. Amaitu ezina gerta zitekeen batzutan kanta hau, ikasle nagusiek gehitu eta gehitu jarraitzen baitzuten eta irakasleok erabaki behar izaten genuen noiz amaitu.

Gorputz atalak lantzeko doinu bat tarareatzen genuen frantsesezko “Jean petit qui danse” delakoa alegia, inguruko dantza bat besoak gora genituelarik egiten genuen bitartean. Erritmoa aldatzen genuen gorputz atala esatean: behatza! eta seinalatu ondoren lurra jotzen genuen berarekin. Hemen ere luze jotzen genuen pixkanaka pixkanaka gorputz atal berriak gehituz eta aurrekoari erantsiz. Zilipurdika bukatzen genuen ipurdia esatean.

Aberen izenak eta bakoitzak egiten duen doinu berezia ikasteko honoko hau abesten genuen:

Behin joan nintzan merkatura
erosi nuen... zer?
txakur txiki bat.
Txakur txiki horrek... zer?
uau, uau, uau,
ai zer gaua pasa nuen nik

Behin joan nintzan merkatura
erosi nuen... zer?
txerri txiki bat.
Txerri txiki horrek... zer?
kurrin, kurrin, kurrin,
ai zer gaua pasa nuen nik

Behin joan nintzan merkatura
erosi nuen... zer?
asto txiki bat.
Asto txiki horrek... zer?
ua, ua, ua,
ai zer gaua pasa nuen nik

Behia, katua eta abere zerrenda luze batek osatzen zuen kantua.

Kantu hauekin batera beste zenbait joko-kanta ere ikasten zituzten. Ikasle guztiak etorri bitartean jokoan ibiltzen baitziren hamar minutuz edo.

Hauen artean ezagunena seguru asko:
Zubiri zubiri
Nungori nungori
Nongo alkate zerade?
Frantziako erregearen

Seme-alabak gerade.
Zubiri honetan

Azken-azkena
Pasatzen dana
Hemen geldituko dala,
Hemen geldituko dala.

Bi ikasleen azpitik pasatzen ziren bitartean denak abesten zuten eta bat bere beso artean harrapatua geratzean bi gauza aukeran ematen zizkioten: Zer nahi dezu marrubia ala limoia? Adibidez. Aukeraren arabera bataren edo bestearen atzealdean ipintzen zen, berriz jokoa hasiz. Azkenean, denak harrapatu eta gero tiraka bukatzen zuten.

Klasikoa den beste joko bat ere irakasten genien: zapi zuriarena. Jakina denez lurtean eserita egiten zen jokoa zen. Batek zuen zapi zuria eta norbaiten atzean laga behar zuen. Konturatu bezain laster bere lekuan eseri baino lehen harrapatzen saiatu behar zuen, bestela kanporatua zen. Oker ez bana-go Nemesio Etxanizek egokitu zuen joko hau.

Sur-zapi txuri honekin
Jolasten gera
Orain alde batera
gero bestera
Zapi txuria lurrera
Zapi txuria eskura
Zapi txuri honekin
Noan aurrera

Keinuka aritzeko beste kanta hau ere oso gogozkoa zuten haurrek:

Kiri-kiri-ken

Ez da gauza errexa
Kiri-kiri-ken
Kiri-kiri-ken
Ez da gauza errexa
ama gezurtatzen.
Kiri-kiri-kendu
Dena jakiten du
Kiri-kiri-ki
Zelan badaki
Kiri-kiri-ko
Ko-ko-ko
Hatz txikiak esateio
Kiri-kiri-ko
Ko-ko-ko
Dan dan dana esateio...

Eskola ihesi
kirikiri kirikiriki

eskola ihesi
baldin joaten banaiz
Kiri-kiri-kendu
Dena jakiten du
Kiri-kiri-ki
Zelan badaki
Kiri-kiri-ko
Ko-ko-ko
Hatz txikiak esateio
Kiri-kiri-ko
Ko-ko-ko
Dan dan dana esateio...

Mutilok borrokan
Kirikiriki kirikiriki
mutilok borrokan
ibiltzen bagera
Kiri-kiri-kendu
Dena jakiten du
Kiri-kiri-ki
Zelan badaki
Kiri-kiri-ko
Ko-ko-ko
Hatz txikiak esateio
Kiri-kiri-ko
Ko-ko-ko
Dan dan dana esateio...

Behatzekin zer ikusia zuen beste kanta hau ere abesten genuen
Lenengotxu hori, punta behatz hori
beste guztien artean txikia dek hori
laralaralara...
Bigarrentxu hori, punta behatz hori
beste guztien artean nagia dek hori
laralaralara...
Hirugarren hori, punta behatz hori
beste guztien artean luzea dek hori
laralaralara...
Lugarrentxu hori, punta behatz hori
beste guztien artean langilea dek hori
laralaralara...
Bosgarrentxu hori, punta behatz hori
beste guztien artean lodia dek hori.
laralaralara...

Kantu eta joko hauekin batera don-donak eta aho korapiloak ere irakasten genizkien. Lehengoak beharrezkoak zituzten jokoak hastean nagusi zein izango zen jakiteko, bigarrenak berriz hizkuntza aberastu eta lantzeko erabiltzen genituen. Lehenengoen artean:

Don-don-don, Kikilikon
Saltsapika, Tortolika Demuxon
Aitona Martzelon
Kixki ta Mixki Ta Kaskamelon
Sagarra mantzana Ikatza carbon
Mujer andria hombre gizon
Xanti Xanti Xanti Txilibitero
Xanti Xanti Xanti Txilibiton
Txin pon

Batzutan “*Dona, dona katona...*” ere erabiltzen genuen.

Bigarrene artean berriz beste hau behatzak erabiliz egiten zen:

Honek eta honek eta honek
Bart ezteiak zituzten
Honek honi zer esan
Konbida zitzala hau ta hau
Konbidatzaileak hau ta hau
Hauetxek dirade hogeita lau

Biren arteko kantu hau ere egiten zuten txalotzen zuten bitartean:

Tinter tanter,
hail ekarrak
adarra, einen
daiat txirula
Zertaz?
gaztain alaigan
politaz
Txirula, mirula
kantari,
balin ba haiz izerdi
kris, kras
atera hadi

Aho korapiloen artean aski ezaguna den: *Akerrak adarrak okerrak ditu* ikasten zuten baita ere.

EGUBERRIKO KANTAK

Guzti honekin azaroa heltzen zitzaigun eta Gabon kantei heldu behar genien. Bataz beste hamabost bat kanta ikasten zituzten haurrek eta horietako batekin antzerki antzeko bat egiten zuten. Jakina da Santo Tomas eguna festa izan ohi dela donostiarrontzat eta egun horretan hain zuzen, baserritarrez jantzita etorri ohi ziren ikastolara bere festa egitera Konstituzioko plaza-ko azokara joan aurretik. Ezagun diren abestien artean Olentzero, bi edo hiru desberdin, Erregeei buruzkoak, eta Jesus haurraren jaiotzari zegozkionak

ziren. Aipatu nahi dut hemen Usue Leizaolak gai honi buruz argitaratu gabeko egindako lan bat bere Pedagogia karreraren zehar.

Kanta hauek aski ezagunak dira behin eta berriz kantutegietan argitaratuak izan direlako eta gure herriaren memorian bizirik dirautelako. Nik hemen denbora faltan zerbait esan nahi dut biri buruz. Biak Donostia dute kokagune eta biak dira garrantzitsuak nire ustez. Batak garaia erakusten digu: 1813 ondorengoa gutxienez, harresietako bretxa egin berria edo, besteak berriz, Olentzero kostalderaino ekartzen digu.

Goazen bada bi abesti hauekin aurrera

Erregeak datoz, Erregeak datoz
Bretxan barrena, Bretxan barrena
Guk bila dezagun, guk bila dezagun
Jesus lehenak, Jesus lehenak
Ate txokuan oilar bi
Batak bestea dirudi
Etxe honetako etxeoandrea
Amabirjina dirudi
Amabirjina, Amabirjina
Zu zera Zeruko Erregea

Olentzeroren abestiaren ahapaldi batek honela dio:

Olentzero, begi gorri
Non harrapatu dek
Arrain hori
Zurriolako arroketan
Bart arratseko hamaiketan

Gabonetako abesti hauek beti eskatzen zuten esplikazio bat eta batez ere Olentzero pertsonaiak. Ez zen ulerterraza izaten haurrentzat eta batzutan ezta guretzat ere hain ezaguna den honoko bertso honen letra:

Olentzero buru handia
Entendimentuz jantzia
Bart arratsean eran omen du
Hamar larruko zagia
Ai urde tripa handia
Laralalala, laralala
Ai urde tripa handia
Laralalala, laralala
Horra, horra gure Olentzero
Pipa hortzian duela
Eserita dago
Kapoiak ere baitu
Arrautzatxuekin
Bihar meriendatzeko
Zagí ardoakin

“Ai hau Gabaren zoragarria”, “Artzaiak datoz oihu ta irrintzi mendian barrena”, “Horra mari Domingi”, “Hator hator mutil etxera”, “Olentzero joan zaigu”, “Birjiña maite”, “Abenduko hilaren hogeita lauean”, “Aupa goazen gabon eskian”, “Haurtxo maite nola zaude (Stilen night)”, “Gabeko izar” dira besteak beste zerrenda luze baten adierazgarri. Gabon kanta liburuetan argitaratuak izan ohi direlako ez ditut hemen letra guztiak ematen.

HIRIKO FESTAKO KANTAK

Donostiatik at ez ezagunak direlako edo, bertako festetako kanta aipatu nahi ditut.

Gabonetako oporretatik bueltan nahiko lana izaten genuen Urtarrilaren 20rako San Sebastian martxaren letra eta gainontzekoak irakasten erritmoa ondo eramanaraziz gutxienez.

Bagera, gu-re bai
Gu beti pozez, beti alai

Sebastian bat bada Zeruan
Donosti bat bakarra munduan
Eta zer Santua eta zer herria
Hara zer dan gure Donostia

Hirutxuloko Gaztelupeko
Josemari zahar eta gazte
Kalerik kale Danborra joaz
Umore ona banatzen hor dijoaz
Mutilak
Gaurtandik gerora penak zokora
Festara! Dantzara!
Donostiarroi oihu egitera gatoz
Poz handiz
Iñauteriak datoz
Bagera, gu ere bai
Gu beti pozez, beti alai

Berehala genituen beste bi festa berezi: Kaldereroak eta Santa Ageda. Kaldereroen kasuan euskarazko letra eta doinua irakasten genien eta Santa Agedaren kasuan gutxienez bertso bat.

Kaldereroen euskal letra

Begi urdin bat, Begira dago
Algaraz leiho batetik
Beste beltzaran tentatzailia
Xeletan berriz bestetik
Zoramen hauek maite ditugu

Bihotzen erdi-erditik
Ez gara joango hoiek lajata
Gehiago Donostiatik.
Ez gera joango ez gu Donostiatik.

Famaren hotsak goititutzen du
Merezi duen herria
Zeru txiki bat dirudiena
Hala da gustagarria
Lengoko zaharra txukun txukuna
Eder alaia berria
Etzaigu penik beinere joango
Lenago ez etorria.

Kantu honen bigarren ahapaldia ez zen Donostian kantatzen. Hernanin aldiz hau zen kantu nagusia eta bi ahapaldiak kantatzen ziren.

Otsailaren 4an Santa Ageda bezperako gutxienezkoa irakasten genien, kontuan hartuta garai haietan hiri handian, festa hau ez zela erraz ikusten.

Zorion etxe hontako denoi
Oles egitera gatoz,
Aterik ate ohitura zaharra
Aurten berritzeko asmoz
Ez gaude oso aberats diruz
Ezta ere oinetakoz
Baina estarriz sano gabiltza
Ta kanta nahi degu gogoz.

Kantatzekoa ez bada ere, tartean San Blas eguna otsailaren 3an ospatzen da. Ohiturari jarraituz haurrek gozoki, gaileta eta horrelakoak etxetik ekarri eta Elizara joaten ginen horiek bedeinkatzera.

UDABERRI, JAUNARTZE GIROKO KANTAK

Udaberriak beti haize berriak ekarri ohi dizkigu eta gure kasuan baita ere. Ohitura zen garai hartan igandetan mendira joatea, autobusa hartu eta batez ere itzultzean, gazteen euforian edo, asko abesten genuen. Horien artean *“Mendizaleak aurrera”* abestiarekin hasi eta *“Haurrak ikas zazue”*, *“Udaberrian abiatu nintzan”*, *“Agur Zuberoa”*, *“Euskaldun makila”*, *“Aldapeko sagarraren adarraren puntan”*, *“Ama begira zazu”*, *“Ederra, ederra Donostia”*, *“Kalean gora kalean behera”*, *“Iragan festa biharamunean”*, *“Boga boga”*, *“Ixil ixilik”*, *“Oi Ama, amatxo paper zuriz eidazu txalupa”*, *“Aitorren hizkuntz zaharra”*, *“Alperraren astea”*, *“Beti eskamak kentzen”*, *“Ikusi mendizaleak”*, *“Maritxu nora zoaz”*, *“Gure itsasoa, bildurgarria...”* *“Baserritarrak gera gu”* batzuk apaitzearren ziren guk gure ikasleei irakasten genizkien abestiak.

Ederra, ederra Donostia
Ederra ederra ederra da
ederra Donostia
ederra ibarra mendia
ederra itsaso bazterra.
Ederra ederra agertzen da
itsaso handia
ederra Urume oinetako
usotxo txuria.
Entzun itsasoaren mur, mur, mur goxoa
itsasoren lirainaz hegaz badijoaz
hara maitagarrien abesti samurrak
itsasoak dakarzki eztiz, eztiz sutsutuak
Goazen itsasora txalupan sartuta
Uraren gainean leun ibiltzera
Nork nahi du joan Santa Klarara? Pasaira?
Nik!!!!
Goazen itsasora txalupan sartuta
Uraren gainean leun ibiltzera

“Oi Ama, amatxo paper zuriz eidazu txalupa”
Oi ama, amatxo paper zuriz eidazu txalupa,
txalupa bat txalupa bi txalupa bost hamaika.
Aurrean branka, atzean txoa ta erdian masta zorrotza
Oi ama amatxo...

“Alperraren astea”

Astelehena, jai ondorengo alperra
lana ez egiteko ez goaz lanera

Asteartea euria goitik behera
bustiko ez bagera ez goaz lanera

Asteazkena hagnetako mina
aspirina hartuta bagoaz ohera

Osteguna amonaren eguna
festa ospatzeko ez goaz lanera

ostirala_____

larunbata egun erdiko lana
erditxo batengatik ez goaz lanera

Igandea lantegiak itxita
lana egin nahi eta ezin joan lanera

Argi ageri da era eta mota guztietako kanta herrikoiak irakasten genizkie-la ikasleei, itsas kantak, mendi kantak, haurrenak eta abar. Haurrek ikasten zuten psikomotrizitatea lantzen zuten bitartean eta euskara ikasten zuten bitartean.

Udaberri garaia Jaunartze denbora zen, eta Jaunartu behar zuten haurrek, dotrina ikasi behar zuten eta honekin batera otoitzak eta eliz kantak. Denon laguntzarekin ikasten zituzten guzti horiek, denok errepikatzen bai genituen otoitz, eta eliz kanta Jaunartze egun arte eta elizan esku hartzen genuen denok zeremonia garaian.

Kurtsoa amaitzeko hilabete eskas geratzen zen denboran nagusiek Euskal Herriko ibai, mendi eta mendikateak ikasten zituzten, hau ere denon laguntzaz egiten zuten, kantu doinuan errepikatzen bai genituen denok. Gaia-rekin erabat loturik ez badago ere azken atal hau, hemen kokatzea egokia iruditu zait ahoz esaten baitziren aurreko guztia bezala.

Hauetxek dira geografia arloko gai hauek:

Adurren bukatzen diren ibaiak: Nibe, Ardanabi, Aran, Biduze eta Mauleon.

Kantauri itsasoan bukatzen diren ibaiak: Nibele, Bidasoa, Oiartzun, Uru-mea, Oria, Urola, Deba, Artibai, Lea, Mundaka, Gaminitz eta Nerbion.

Ebron bukatzen diren ibaiak: Omezilo, Baias, Zadorra, Ega, Arga, Zidakoz eta Aragoi.

Euskal Herriko mendiak hauetxek dira: Hiru Errege Mahaia, Añelarra Arlas, Ezkaurre, Ori, Larraun, Aizkorri, Gorbea, Okabe eta Ahadi.

Euskal herrian hiru mendi kate daude: lehenengoa sortaldekoa Anie ton-torretik Donibane Garaziraino, bigarrena erdikoa Donibane Garazitik Tolosarai-no eta hirugarrena sartaldekoka Tolosatik Balmasedaraino.

Zer esanik ez dago azken atal hau gogorra egiten zitzaiela gure ikasleei, baina zaharrenak, konturatzen zirenean paretan zegoen mapan aurki zitzake-tela buruz esaten zituzten ibai eta mendi haiek, inork esan gabe jolasa beza-la hartzen zuten bata besteari galdetzea ea non zegoen hau edo bestea.

Amaitzeko ez ditut ahaztu nahi zenbakiak ikasteko gorantz eta beherantz erabiltzen genuen: *“Bat, bi, hiru, lau...”* edo EAJren mundutik, Poxpoliñetatik alegia, hartutako zenbait kanta hala nola:

“Mendi mendian sorgin zaharrak,
trikiti trauki, trikiton,
salto eta brinko jolasten dira,
artzaia bitartean lo.
iñarrezko erratzekin
ris, ras, ris ras ros

garbitzen dute larraina
ris, ras, ris ras ros
garbitzen dute larraina
ris, ras, ris ras ros

“Mendi mendian sorgin zaharrak,
trikiti trauki, trikitron,
salto eta brinko jolasten dira,
artzaiak bitartean lo.
sutondoan kukulumutx
uix uix uix uix uix
begizkoa egiten die
uix uix uix uix uix
begizkoa egiten die
uix uix uix uix uix

(Lehenengo ahapaldian erratza pasako balute bezalakoaren keinua egiten dute, bigarreanean berriz eskuak begi ondoan ipiniz ireki eta itxi egiten dira begizkoa egingo balute legez.)

edo “ikurriñarena” besteak beste.

Nire amaren belaunaldiari zor diogu beraiek jasotako ahozko altxorra guri irakatsi izana. Ez dakit guk beste hainbeste egiteko gai izan garen. Saiatu, saiatu gara, geroak esango du ea lortu dugun.